

## Itsasadarra, Orioko altxorra



Gutxi dira Oria bezain ongi kontserbaturiko itsasadarrak; 2003an Garrantzi Komunitarioko Eremu izendatu zuten, eta ordutik Natura 2000 sarearen baitan dago. Baina babesgune izendatua izanagatik, Orioko errioa etengabe mehatxupean dagoela dirudi.

Kukuarriko gailurra txoko berezia da oriotarrentzat, baita San Martin ermita ere. Ermita ondotik igarotzen den bidetik iritsiko gara Kukuarrira. Oriotik Igeldorako txangoa ere estimatua da. Errepidez, Santiago Bidearen geziei segika edo itsasertzetik, GR-ari jarraituz, osa genezake Oriotik Donostiarainokoa. Zarautzera txango ederra egin daiteke, Agorregiko burdinola ere gertu dago, Aian Pagoetako natur parkea... Oriok, ordea, badu beste altxor bat, agerikoa izanagatik askorentzat ezezaguna: itsasadarra. Gizakiak kolpatua

Erdi Aroan gizatalde egonkorra kokatu zen Orioko itsasadarrean, ibaia eta itsasoaren inguruan garatutako merkataritza, arrantza eta nekazaritza zutela bizibide. XIX. mendetik aurrera, itsas merkataritzak lehorrekoari egin zion lekua, eta industria zein garraio bideak erriaren bazterrean kokatu ziren. XX. mendeko 60ko hamarkada ilunean, erriora isuritakoek eragindako kutsadurak goia jo zuen: ekosistemen gainbehera, uren eta lurren kutsadura, espezie kopurua jaitea eta kasu askotan desagertzea etorri ziren. Egun, natur guneak babesteko legeak lege, nekeza da, gizakiaren nahierara moldatutako erriaren iraganeko nortasunaren zantzuak topatzea, Motondo, Santio erreka edo Oribarzar bezalako gune jakinetan ez bada.

Mendeen joanak eta, batez ere, gizakiaren eraginak, ibaia modu atzeraezinean eraldatu duten arren, oraindik ere itsasadarrak gordetzen du berezitasunik bere baitan. Animalia zein landare espezieetan aberatsa da Oriaren zati hau.

Padurak, gordeleku aberatsak

Itsasadarrak zenbait padura gordetzen ditu oraindik. Padurak ur gazia eta geza nahasten diren hezeguneak dira, ekosistema garrantzitsuak oso, bi inguruneetara moldatzen diren espezieak aurkitu baitaitezke bertan. Bestelako funtzioak ere betetzen dituzte padurek: ur zikinen araztegi onak dira eta hegaztien atsedeen gune ere bai, migrazio garaian. Sasoi

horretan, lertxunak, lertxuntxoak, amiamokoak, espatulak, ahateak, ubarroiak, martin arrantzaleak, lezkariak eta beste hainbat hegazti bilakatzen dira behin-behineko paduretako biztanle.

Errioa eta haren aberastasunak bertatik bertara ikusteko modurik onena piraguan itzulitxoak egitea da. Orioko turismo bulegoak piragua irteerak antolatu ohi ditu uda partean. Modu horretan, lehorretik behar den moduan hauteman ezin daitezkeen padurak, hezeguneak, eta eremu horiek gordetzen dituzten sekretuak ezagutzeko aukera izango du bisitariak.

Herrio Natur Taldea

Orioko erriogan ur gezako arraun pista olinpikoa –kilometro bat luze izango zena– eraiki nahi zuen proiektuak akuilaturik sortu zen modu formalean Herrio Natur Taldea. Meandroaren desagertzea, errioa bera berbideratzea eta hainbat paduraren suntsipena zekarkiokeen Orioko erriogari arraun pista eraikitzeak.

Natura babestea helburu, herriaren kontzientziazioa hainbat bide erabiliz sustatzeko hautua egin du Herriok azkenaldian; horrela, orotariko jarduera didaktikoak aisialdiarekin uztartzen saiatzen dira. Inguruko beste natur taldeekin harreman estua dute; asteotan puri-purian dagoen Gazumeko parke eolikoaren aurkako mugimendurekin ere egin dute bat, esate baterako. Aurten, gainera, Maiatza Naturan izeneko ekimena antolatu du Herriok lehenengoz, orain dela ehun urte European lehenengo parke nazionala izendatu zutela aitzakiatzat harturik.

[Gorka Azkarate](#)